

Industria Koiunturaren Inkesta
2024ko martxoa. Behin-behineko datuak.

Nafarroako industria-jardueraren gaineko enpresen konfiantza aurreko hilekoaren antzekoa da izan da martxoan

2024ko apirilaren 29a


INDUSTRIA-GIROAREN ADIERAZLEA

Nafarroa. Martxoan, Nafarroan enpresek industriaren jarduerarekiko duten konfiantzak, Industria Giroaren Adierazlearen (IGA¹) bidez neurtuak aurreko hilabeteko iritzien antzekoak izan ditu.

Espainia eta Europar Batasuna. Espainiako Industria Giroaren Adierazleak iritzi ezkorragoak islatu ditu, eta Europar Batasunekoak, berriz, konfiantzaren hobekuntza arina erakutsi du.

1. GRAFIKOA

Industria Giroaren Adierazlea (Nafarroa: zikloa-joera)



Iturria: Industria Koiunturaren Inkesta - Nastat / Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa / Eurostat

¹ Enpresa-iritzien adierazle hauen batez besteko aritmetikoa kalkulatzearen emaitza da IGA: eskaera-zorroa, produktu bukatuen izakinak (zeinuz aldatuta) eta produkzioaren joera (urtaro-aldakuntzetatik zuzenduta guztiak).



Erabilera-maila. Egungo ahalmen produktiboa % 80koa da martxoan, bai abenduan esimatutakoaren antzekoa, bai 2023ko martxoarekin alderatuta.

Sektoreen portaera. *Zurgintza eta altzarigintza, Papergintza eta inprimaketa, Garraio-materiala* eta Metalezko produktuak adarretan konfiantza hobetzeak konpentsatu egiten ditu Nekazaritzako elikagaien industria eta Kimika adarretan eta, halaber, *Mineralak eta metalak, Ehungintza, larrugintza eta oinetakogintza* eta *Bestelako manufakturak* adarretan ikusitako iritzi ezkorrenak. Gainerako adarrek egonkortasun-profila erakusten dute.

1. TAULA

Erantzun-saldoen aldea, adarraren arabera eta aurreko hilarekin alderatuta. 2024ko otsaila.

Elikagaiak, edariak eta tabakoa	Ehugintza, larrugintza eta oinetakogintza	Zurgintza eta altzarigintza	Papergintza eta inprimaketa	Kimika, kautxugintza, plastikogintza eta bestelako manufakturak	Mineral ez-metalikoak	Mineralak eta metalak	Garraio-materiala	Produktu metalikoak
▼3	▼1	▲2	▲1	▼2	=	▼2	▲1	▲1


Iturria: Nastat. Industria Koiunturaren Inkesta. Behin-behineko datuak.
Sinbologia: ▲ (igoera); ▼ (jaitsiera); = (alderik gabe)

FABRIKATUTAKO ONDASUN-MOTAREN ARABERA²

Inbertsio-ondasunak produzitzen dituzten enpresek izan dute bilakaerarik onena aurreko aldiarekin alderatuta, eta *kontsumo-ondasunek* eta *bitarteko ondasunek*, berriz, iritzi ezkorragoak izan dituzte.

2. GRAFIKOA

Nafarroako Industria Giroaren Adierazlea, fabrikatutako ondasun motaren arabera (zikloa-joera)



Iturria: Industria Koiunturaren Inkesta - Nastat / Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa / Eurostat


² Produzitutako ondasun ekonomikoak honela sailka daitezke:
Kontsumo-ondasunak: kontsumitzaileen beharrak zuzenean asetzeko egindako produktuak. *Bitarteko ondasunak*: produkzio-prozesuan bitarteko produktu gisa erabiltzen diren lehengaiak, ondasunak eta zerbitzuak. *Inbertsio-ondasunak*: beste ondasun batzuk produzitzeko erabiltzen dira.



ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA

Enpresa-mota guztiek, beren tamainaren arabera, aurreko hileko iritzi-mailari ia eusten diote.

3. GRAFIKOA



Iturria: Industria Koiunturaren Inkesta - Nastat / Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa / Eurostat



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00





OHAR METODOLOGIKOA

Industria Koiunturaren Inkesta (IKI) Nafarroako Estatistika Erakundean tradizio handiena duen arlo ekonomikoaren estatistika-eragiketa da; 1988an hasi zen. Orduetik, metodologia aldatu egin da, Espainian eta EBn egiten direnen antzeko inkestetara egokitzeko.

Izaera kualitatiboko inkesta honen helburua da industria-enpresen egungo egoerari eta etorkizun hurbilerako dituzten aurreikuspenei buruzko informazioa lortzea. Emaitzak erantzun-saldo moduan aurkezten dira; hau da, dibisio eta aldagai bakoitzerako erantzun positiboan eta negatiboan arteko saldoa edo aldea kalkulatu da. Enpresen erantzunak langileen kopuruaren arabera haztatzen dira dibisioaren guztizkoarekiko (adarra, ondasun mota edo tamaina). Industriaren multzoaren emaitzak, halaber, 9 industria-adarretako bakoitzaren balio erantsiaren arabera haztatutako batezbestekoa dira.

Galdetegietan jasotako erantzun guztien saldoen ehunekoez gain, adierazle sintetiko bat eraikitzen da, industria-giroaren adierazle deritzona, eta hark sektorearen bilakaerari modu globalean behatzeko aukera ematen du eta eskaera-zorroaren mailari, produktu amaituen stock-ei (zeinu-aldaketa) eta produkzioaren joerari buruzko iritzien saldoen batezbesteko gisa definitzen da, haietan guztietan urtaroaren araberako aldaketak zuzenduta.

Datuak azkar bildu, tratatu eta zabaltzen direnez, IKIak adierazle optimoak ematen ditu industria-koiunturaren jarraipena egiteko, eta haren emaitzak aldagai makroekonomiko jakin batzuen adierazle aurreratu gisa erabil daitezke. Halaber, ziklo ekonomikoan inflexio-puntuak aurreratzeko tresna ona dira.

Nafarroako Estatistika Erakundeak eskerrak eman nahi dizkie galdetegia hileru eta eskuzabaltasunez erantzuten duten enpresei; izan ere, haiei esker presta daitezke Komunitateko industria aztertze hain garrantzitsuak diren koiuntura-adierazle horiek.

- **Unibertsoa:** jarduera nagusia manufaktura-industria duten enpresak.
- **Eragiketa mota:** jarraitua, hilean behingoa.
- **Emaitzen erreferentzia-aldia:** hilabetea.
- **Laginaren ezaugarriak:** ausazko hautaketa, adarraren, ondasun motaren eta enplegu-geruzaren araberako geruzapenarekin.
- **Laginaren tamaina:** 271 enpresa.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Industria Koiunturaren Inkesta. 2024ko martxoa.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00